# gaurko filmak

Ane Muñoz

| | |
|---|---|
| **El amor de Don Juan** | ★ |
| Zuz.: John Berry. 89m. Esp. 1956. | **11:00 La2** |
| **El halcón y la flecha** | ★★★ |
| Zuz.: Jacques Tourneur. 84m. 1950. | **18:25 ETB2** |
| **Sexy Boys** | ★ |
| Zuz.: Stephane Kazandjian. Fran. 2001. | **21:00 C+(f)** |
| **Frequency** | ★ |
| Zuz.: Gregory Hoblit. 114m. AEB. 2000. | **22:00 A3** |
| **Ronin** | ★★ |
| Zuz.: John Frankenheimer. 116m. 1998. | **22:00 T5** |
| **Hannibal** | ★★ |
| Zuz.: Ridley Scott. 131m. AEB. 2000. | **22:00 C+(e)** |
| **Amor de hombre** | ★ |
| Zuz.: Y. Garcia Serrano, J. L. Iborra. 1997. | **23:15 La2** |
| **La chanson de Roland** | ★★ |
| Zuz.: Frank Cassenti. 110m. Fran. 1978. | **00:40 Arte** |
| **D.A.R.Y.L.** | ★★ |
| Zuz.: Simon Wincer. 100m. 1985. | **01:45 ETB1** |
| **Regreso inesperado** | ★ |
| Zuz.: Yves Simoneau. 93m. AEB. 1993. | **02:30 TVE1** |
| **No desearás al vecino del quinto** | ★ |
| Zuz.: Ramon Fernandez 82m. Esp-Ita. 1970. | **05:20 A3** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |



INTRIGA★★
**Ronin** Zuz.: John Frankenheimer T5 22:00

## Abentura klasiko gozagarria

**EL HALCÓN Y LA FLECHA** ★★★ **ETB2 - 18:25**

Zuz.: Jacques Tourneur. Akt.: Burt Lancaster, Virginia Mayo. 84min. 1950.

50eko hamarkadako zeluloide puska gozagarri eta oso entretenigarri honek Hollywoodeko abenturazko klasikoetan ezinbestekoak diren aurpegiak biltzen ditu, Burt Lancaster gihartsua eta Virginia Mayo erakargarria, tartean. Zuzendariak, Jacques Tourneur maisuak, ederki luzitzeko aukera eman die bi horiei, eta haien neurrira egokitutako pertsonaiak eskaini dizkie. Eszenaratzea txukun zuzendu zuen, baina beste generoetan maisutasun handiagoa erakutsi zuen. Istorioa oso atsegina da, umoretsua, samurra eta polita.

### EL AMOR DE DON JUAN

★ La 2 - 11:00

Zuz.: John Berry. Akt.: Fernandel, Carmen Sevilla. 89min. Espainia-Frantzia. 1956.

John Berryk zuzendutako ekoizpen frantziar eta espainiar honetan antzezle talde berezia topatuko duzue. Bertan Don Juan neskazale mitikoaren istorioa umorez erakusten du. Protagonisten artean, Carmen Sevilla eta Fernandel Frantziako komiko ahaztezina elkartu dituzte. Gidoia, hain zuzen ere, Juan Antonio Bardem adimentsuak idatzi zuen. Berryk, aldiz, grazia gutxirekin pantailaratu zuen.

### RONIN

★★ T5 - 22:00

Zuz.: John Frankenheimer. Akt.: Robert de Niro, Jonatha Pryce. 116min. AEB-EB. 1998.

Robert de Nirok eta Jean Reno aktore frantziarrak protagonizatzen dute akziozko film garesti hau. John Frankenheimer zuzendariaren lan kaskarretakoa da, baina zuzen filmatua dago, erritmo arinez muntatu dute, eta, oro har, nahikoa entretenigarria da akziozko polizia film komertzialak atsegin dituzuenentzat. Hainbat herrialdetako bost merzenarioren misio arriskutsuaren lekuko izan nahi baduzue, hona aukera hori ikusteko.

### AMOR DE HOMBRE

★ La 2 - 23:15

Zuz.: Yolanda Garcia Serrano, Juan Luis Iborra. Akt.: Loles Leon, Andrea Occhipinti. Espainia. 1997.

Juan Luis Iborra eta Yolanda Garcia Serrano gidoigile bikoteak zuzendaritzan egindako lehen saiakera da, eta horien ohiko abentura komiko korapilotsu horietako baten zinemaratze arrunt samarra da. Loles Leon histerikoak rol nagusia jokatzen du Andrea Occhipinti eta Espainiako beste aktore ezagunez inguratuta. Aktoreen lana eskasa da, eta horien ezpainetatik entzungo ditugun elkarrizketak ez dira oso finak, egia esateko.

### D.A.R.Y.L.

★★ ETB1 - 01:45

Zuz.: Simon Wincer. Akt.: Barret Oliver, Mary Beth Hunt. 100min. 1985.

Simon Wincer zuzendariaren film fantastiko komertzial txiki eta arrunta film hau, eta gaztetxoak entretenituko ditu, batik bat. Etorkizuneko mundu imajinario batera garamatza istorioak, eta burmuinean ordenagailu moduko bat daraman mutiko gaztetxo baten inguruan garatzen da. Protagonista Barret Oliver *Neverending Story* fantastikoan ezagutu genuen mutikoa da. Euskarara bikoiztuta igorriko dute filma.

### NO DESEARÁS AL VECINO DEL QUINTO

★ A3 - 05:20

Zuz.: Ramon Fernandez. Akt.: Alfredo Landa, Ira de Fustemberg. 82min. Espainia-Italia. 1970.

Landismoa modan zegoenean sortutako komedia hau esanguratsuetakoa da Alfredo Landaren luzimendurako 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoaren hasieran sortu zituzten ekoizpen anitzen artean. Estreinatu zutenean arrakasta handia izan zuen, eta, oraindik, Espainiako zinemagintzako film ikusietakoa da. Bestalde, ez da kalitatezko filma, zaharkitu eta zakar samarra baizik. Umorezko abentura sasi-erotiko tuntun eta atzerakoia. Ordu horietan besterik ez baduzue egiteko...

# irratia




**RADIO EUSKADI.** Arabako diputatu nagusi Ramon Rabanera elkarrizketatuko dute goizeko 09:15ean *Boulevard* irratsaioan. Ondoren, Itoitzko urtegiari buruz hitz egingo dute Patxi Gorraiz eta Maria Jose Beaumontekin. Unitate mugikorra ere Itoitzeraino joango da. Ondoren, gurasoei tratu txarrak ematen dizkieten semeei buruz mintzatuko dira Vicente Garrido psikologoarekin. *La caja de los hilos* atala Brasiletik egingo dute, eta Gorka Andrakak Porto Alegreko bilkuraren berri emango du. 17:00etan, *La jungla sonora* saioan, Jose Cortes Jimenez *Pansequito* kantaria elkarrizketatuko dute.

**EUSKADI IRRATIA.** Susana Mujikak gidatzen duen *Lauretan babel* saioan, hainbat gai jorratuko dituzte gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Esate baterako, Eritreara joan berri den Donostiako Gotzaitegiko ordezkaritzarekin mintzatuko dira 17:00 aldera. Argia sarien berri emango dute arratsaldean. Eta 18:00 baino lehen, Oreka Tx taldeko kideak elkarrizketatuko dituzte. Glasgowen egingo duten musika jaialdi garrantzitsu batera doaz astebururan Oreka Tx-koak. Era berean, ostiralero bezala, Iban Lopez moda aditua eta Mikel Susperregi astronomoaren bisita izango dute.

## ETB-1

**07:00:** Tik tak circus.
**07:30:** Betizu.
**08:50:** E-klipse@.
**09:15:** Hasiberriak.
**09:35:** Bidaide.
**10:30:** Euskadi Irratia, 20 urte.
**10:55:** Firin faran.
**11:55:** Uharte basatiak.
**12:45:** Ushuaia.
**13:35:** Betizu.
**14:00:** Gaur egun. Albistegia.
**14:45:** Postdata.
**14:50:** Gaur egun elkarrizketa. Gonbidatua: Iñigo Iruin.
**15:25:** Gag gag.
**16:05:** Bidaide.
**17:00:** Ikusgela.
**17:35:** E-klipse@.
**18:00:** Iparraldearen orena.
**18:05:** Tick tack circus.
**18:15:** Betizu. Animaliakeriak. Pantera arrosa...
**20:28:** Gaur Egun. Albistegia.
**21:10:** Bertatik bertara.
**21:45:** Goenkale.
**22:25:** Pilota: eskuz binaka. Leitza - Albizuri / Azpiroz - Nalda.
**23:00:** Pilota: eskuz binaka. Agirre - Barriola / Berasaluze VIII - Beloki.
**00:10:** Postdata.
**00:15:** Boxeo izarrak.
**01:15:** E-klipse@.
**01:45:** Zinema.
**D.A.R.Y.L.**
Zuz.: Simon Wincer.
Akt.: Barret Oliver, Mary Beth Hunt. 1985.
**03:20:** Bertatik bertara.
**03:55:** Gaur egun elkarrizketa.
**04:25:** Esanak esan.
**05:00:** Elkartasunaren bideak.
**05:25:** Euskal Herritik.
**06:00:** 1 bitan.
**07:00:** Herri musika sorta.
**07:15:** Ikusgela.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas. Albistegia.
**07:30:** Telediario matinal. Albistegia. (09:30) Los desayunos de TVE. Gonbidatua: Jose Maria Alvarez del Manzano.
**10:25:** Saber vivir.
**11:00:** Por la mañana. *Asi son las cosas. (13:25) La cocina de Karlos Argiñano.*
**14:00:** Informativo territorial. Albistegia.
**14:30:** Corazon de invierno. Magazina.
**15:00:** Telediario 1. Albistegia.
**15:55:** Eguraldia.
**16:00:** Geminis. Telesaila.
**16:50:** Secreto de amor. Telesaila.
**17:50:** Cerca de ti.
**18:50:** El rival mas debil. Lehiaketa.
**20:00:** Gente. Pepa Buenok eta Sonia Ferrerek aurkeztutako magazin saioa.
**21:00:** Telediario 2. Albistegia.
**21:55:** Eguraldia.
**22:00:** Cruz y raya.
**23:00:** Esta es mi historia. Magazina.
**02:00:** Telediario-3. Albistegia.
**02:30:** Zinema.
**Regreso inesperado**
Zuz.: Yves Simoneau.
Akt.: Jamie Lee Curtis, Peter Gallagher. 1993.
**04:00:** Canal 24 horas.

## ETB-2

**06:05:** Sustraia.
**06:30:** Del pais de los vascos.
**07:05:** Clasicos en serie. Los Angeles de Charlie. Los hombres de Harrelson. Starsky y Hutch.
**09:30:** El punto Gonbidatua: Carmelo Barrio.
**10:00:** Forum. Gonbidatua: Angel Martinez Salazar.
**10:30:** La ley de la bahia.
**11:25:** Pacific blue. Telesaila.
**13:00:** Cosas de casa.
**13:30:** Euskadi directo. Navarra directo.
**13:55:** Date el bote.
**14:58:** Teleberri. Albistegia.
**15:45:** Lo que faltaba. Magazina.
**18:25:** Zinema.
**El halcon y la flecha**
Zuz: Jacques Tourneur.
Akt: Burt Lancaster, Virginia Mayo. 1950.
**20:00:** Esta es mi gente.
**20:58:** Teleberri. Albistegia.
**21:55:** X cuanto? Lehiaketa.
**23:00:** Mas humor.
**00:40:** Zoombados.
**01:35:** Medias de seda.
**03:20:** Esta es mi gente
**04:10:** Lo que faltaba.
**06:20:** Forum.
**06:50:** Batalla de los sexos en el mundo animal.
**07:20:** Oficios tradicionales.

## A3

**06:00:** A3 N24. Canal Noticias.
**07:00:** Buenos dias España.
**09:15:** El primer cafe. Carmen Gurruchagak aurkeztutako saioa.
**10:30:** Como la vida.
**12:30:** El equipo A. Telesaila.
**13:25:** Informativos territoriales. Albistegia.
**14:00:** Los Simpson. Marrazki bizidunak.
**15:00:** Antena 3 Noticias 1. Albistegia.
**16:00:** Sabor a ti.
**19:00:** El diario de Patricia. Patricia Gaztañagak aurkeztutako magazin saioa.
**20:00:** Pasapalabra.
**21:00:** Antena 3 Noticias 2. Albistegia.
**22:00:** Zinema.
**Frequency**
Zuz.: Gregory Hoblit.
Akt.: Dennis Quiaid, Jim Caviezel. 2000.
**00:25:** Alerta 112.
**01:55:** Antena 3 noticias. Albistegia.
**02:30:** Los Intocanbles.
**03:20:** Televenta.
**05:20:** Zinema.
**No desearas al vecino del quinto**
Zuz.: Ramon Fernandez.
Akt.: Alfredo Landa, Jean Sorel. 1970.
**06:40:** A3N24.